

«indigena» guztiak turutak eta irain-keinuak entzun eta ikusi behar izaten ditu, euskaldunak zergatik haserretzen zaizkion ulertu gabe.

Zehar-kale batean obrak egin behar badira ere, bidezkoa da kale hori 24 ordu tan trafikoarentzat ixtea: baina ez pentsatzea, eta inolako seinalerik ez ezartzea, jendeak beste non aparkatzeko posibilitaterik daukan, administrazio axolagabe edo autoritario baten estiloa da.

Obrak egitea ondo dago, baina trafikoari oztipo egiten dion zerbaiz hilabetetan bertan uztea, bidean nahiz kalean, Donostian Groseko Postaren aitzinean erreten bat aspaldian dagoen moduan, administrazio on baten perfekzio-ispilua ez da.

Euskaldunen administrazioa garbia eta eginkorra zela, esaten didatenean, neure golkoan zera pentsatzen dut: beharbada oso garbia eta eginkorra bai, baina gauzak erdi-egiten eta erdi-uzten dituen herri zabar bat hezitzeko administrazio pedagogikoa ez da.

Eta administrazio on bat herri baten pedagogorik hoherena izan litekeela, pentsatzen dut. Administrazio garbia eta eginkorra baldin bada, baina baita ere pedagogikoa. ■ G. Noss

Tortura, berriro

Torturaren arazoa behin eta berriro aipatu dugu JAKINen, sekula ez aski halere. Hona hemen gaur, inolako iruzkinik gabe, Amnesty International-en agiri-zati bat, torturari buruz Espainian:

«... De acuerdo con la actual legislación antiterrorista, Ley Orgánica 11/80 del 1 de diciembre de 1980, las personas son recluidas en régimen de incomunicado, se les niega el acceso a un abogado y no tienen derecho a ser sometidos a un tratamiento médico independiente o a informar a sus familiares, por un período de 72 horas. Este período se puede extender hasta un total de 10 días si la Audiencia Nacional lo autoriza».

«En opinión de AI estas características de la ley facilitan la práctica de la tortura o malos tratos debido a que la detención en régimen de incomunicado anula la garantía que permite el acce-

so a un abogado o a otras personas durante la fase crucial de la indagatoria policial. Casi todos los casos de tortura o malos tratos que han llegado a conocimiento de AI han tenido lugar durante este período».

«Los tribunales españoles no han respondido ante querellas judiciales aun cuando éstas son respaldadas por pruebas médicas. En forma excepcional, en marzo de 1983, dos policías fueron condenados en Bilbao a 10 meses de prisión y a 10 años de suspensión de sus derechos civiles por torturar a un detenido».

■ *Amnesty International*